

AUTOEBALUAZIO PROZEDURAK: Azken ebaluazioa.

ERIZAINNTZA OTORRINOLARINGOLOGIKOA

Test-erako azken proba, B eredua:

- 1) Aukeratu definizio okerra:
 - a. Akufenoak existitzen ez diren soinuen pertzepzio okerrak dira
 - b. Otagia belarrian mina sentitzea da
 - c. Otorrea kanpoko entzumen hoditik odola ateratzea da
 - d. Gorreria entzumen galera edo gutxipena da
- 2) Aukeratu esaldi egokia:
 - a. Koklean kokatzen diren likidoak endolinfia eta perilinfia dira
 - b. Bestibulua sakulo eta utrikuluz osatuta dago
 - c. Barneko belarriaren funtzio nagusiak entzumena eta oreka mantentzea dira
 - d. Denak egokiak dira
- 3) Erdiko belarriaren aireztapena lortzeko:
 - a. Balsalba maniobrak egiten dira
 - b. Drainatzeak egiten dira
 - c. Insuflatzaileak erabiltzen dira
 - d. Denak egokiak dira
- 4) Kanpoko edo erdiko belarriaren soinu - afektazioa badago:
 - a. Gorreri neurosensoriala dago
 - b. Gorreri mistoa dago
 - c. Presbiakusia dago
 - d. Eroapen gorreria dago
- 5) Zein da froga bestibularren funtzio nagusia?
 - a. Krisi neurovegetatiboak diagnostikatzea da
 - b. Syndrome bertiginosoa diagnostikatzea da
 - c. Meniere gaixotasuna diagnostikatzea da
 - d. B eta C egokiak dira
- 6) Apofisi mastodearen konponketa kirurgikoa:
 - a. Tinpanoplastia da
 - b. Miringoplastia da
 - c. Mastoidektomia da
 - d. Tinpanozentesia da

- 7) Arrinia:
- Septoplastia mota da
 - Sudur malformazioa da
 - Polirriniaren sinonimoa da
 - Usaimen aldakuntza da
- 8) Aukeratu esaldi okerra:
- Poliposis-ak sintomatologia alergikoa dauka
 - Sinusitis-ak aldebatekoa edo bikoak izan daitezke
 - Sinusitis-aren sintoma nabargarriena zefalea da
 - Poliposis-aren sintoma nabargarriena zefalea da
- 9) Faringitisak. Aukeratu esaldi egokia:
- Faringitis birikoaren sintomatologia ohikoena katarroarena da
 - Faringitis birikoaren tratamendua analgesikoak, antiinflamatorioak eta likidoak ematean datza
 - Faringitis kronikoak irenste arazoekin batera ematen dira
 - Denak egokiak dira
- 10) Laringitisaren ziorik nagusiena:
- Ingurune sikua da
 - Traumatismoa da
 - Birikoa da
 - Bakterianoa da

Egia ala gezurra aukeratzeko azken proba, B eredua:

- 1) **Soinua erdiko belarritik barnekora leiho obalaren bitartez transmititzen da.**
- 2) **Rinitisak akutuak eta kronikoak dira.**
- 3) **Mastoiditisaren konplikazioen artean meningitisa eta gorreria daude.**
- 4) **Laringitisaren tratamendua hezetasuna bermatzea da.**
- 5) **Sudurraren funtzio bakarra usaimena da.**
- 6) **Ezko tapoien sintomak mina, akufenoak eta azkura dira.**
- 7) **Bertigoak bi motakoak dira: zentralak eta periferikoak.**
- 8) **Amigdalitisak infekzio birikoak eta bakterianoak dira.**
- 9) **Mastoiditisaren sintomak sukarra, mina, nekea eta belarria atzeratzea dira.**
- 10) **Rinoskopiak bi motakoak dira: aurrekoak eta atzekoa.**
- 11) **Tinpanometria froga subjektiboa da.**
- 12) **Parotiditisak beti kutsakorrek dira.**
- 13) **Soinu guztiek belarriari kalte egin diezaiokete.**
- 14) **Amigdalitis motaren diagnostiko zehatza birage-frogaren bitartez egiten da.**
- 15) **Akumetria froga subjektiboa da.**
- 16) **Trakeotomiak eta trakeostomiak sinonimoak dira.**
- 17) **Eustakioaren tronpa belarriaren atzean kokatzen da.**
- 18) **Ezko tapoia ateratzeko ondorio posibleak bertigoa, mina, infekzioa edo nistagmoak dira.**

Kasu klinikoa. Azken proba, B eredua:

Larrialdietako zerbitzuan egiten duzu lan eta zorabiatutako paziente batek zuregana jotzen du. Berak bere ondoan dauden gauzak mugitzen ari direla jakinarazten dizu eta ez duela konorterik galdu.

1. Zein da pazienteak pairatzen duen bertigo mota?
2. Zeintzuk dira bertigo periferiko eta zentralen arteko ezberdintasun nagusienak?
3. Tratamenduari dagokionez, zein motatako zainketak eman beharko dizkiozu pazienteari bertigo krisi horretan?

ERANTZUNAK (B eredua):

Testa, B eredua:

- 1) C
- 2) D
- 3) D
- 4) D
- 5) D
- 6) C
- 7) B
- 8) D
- 9) D
- 10) A

Egia ala gezurra, B eredua:

- 1) Egia
- 2) Egia
- 3) Egia
- 4) Egia
- 5) Gezurra
- 6) Gezurra
- 7) Egia
- 8) Egia
- 9) Gezurra
- 10) Egia
- 11) Gezurra
- 12) Gezurra
- 13) Gezurra
- 14) Egia
- 15) Egia
- 16) Gezurra
- 17) Egia
- 18) Egia

Kasu klinikoa. Azken proba, B eredua:

Larrialdietako zerbitzuan egiten duzu lan eta zorabiatutako paziente batek zuregana jotzen du. Berak bere ondoan dauden gauzak mugitzen ari direla jakinarazten dizu eta ez duela konorterik galdu.

- 1. Zein da pazienteak pairatzen duen bertigo mota?**
 - a. Bertigo periferikoa.
- 2. Zeintzuk dira bertigo periferiko eta zentralen arteko ezberdintasun nagusienak?**
 - a. Bertigo zentralak: hasiera motela, intentsitate arina, zorabia/ezegonkortasuna, iraupen aldakorra, jarraiak, sintoma neurologikoak/begetatibo eskasiak, postura aldaketekin ia ez dute erlaziorik
 - b. Bertigo periferikoak: hasiera bat-batekoa, intentsitate handia, errotatorioak, iraupen laburra, episodikoak, sintoma otologikoak.
- 3. Tratamenduari dagokionez, zein motatako zainketak eman beharko dizkiozu pazienteari bertigo krisi horretan?**
 - a. Atsedenaldia
 - b. Supresore bestibularrak
 - c. Antiemetikoak